

KARBONO KONTUA ETA HAZKUNDE TASA

Uztailaren 6-tik urrietaren 26a-arte.
Bastien Cosson eta Elsa Oliarj-Ines-ek
pentsatūrik

Goiza da, ene leihotik so niz. Ebi xehe bat, soro bat, oihan bat. Ene aūzoa behien gibelean botaz lasterka ari. Ez dakit haren egūna noiz hasi den, ez eta noiz enea ekuratūko den.

Gure lanak gure bizia hartzen dū, zentzūz eta herstūraz betetzen.

Denek bezala hanitz lan egiten dūgū.

Bena besteekiko desberdintarzūn lodi bat bada: lan egiten dūgū deus irabazi gabe.

Laborari batek, batz bestean, 910€ irabazten dū hilabetean.

Artista batek 892€.

NO PAIN NO GAIN

" Zer egiten dūk bizitzeko? - Artista niz.

- Bikain! Zer egiten dūk? - Pintūra.

- Eta saltzen dūk? - ..."

- Artista niz. - Pintūra.

- ..."

Nahiz eta artista bati haren lanaz bizitzen denez beti galdegiten zeion, laborari bati ber galtoaren egitea nihurek ez lūke pentsatūko.

"Noiztenka, asmatzen dūt zū bezala egiten dūtala: dena ekuratū eta tintatzen hasi."

Ene aūzoak eta nik, denek inbeatzen deikūen ūnibertso batetan ibilteaz irus senditū behar gūnūke. Alta, nihurek ez lūke gure prekaritatea nahiko.

Laborarien azken manifestaldietako eskakizūnetarik bat: SMIC-aren ber heineko gūttieneko irabazia, prezoetan oinarritūrik ez eta soş lagūngoetan.
Zonbaitentako PAC, besteentako DRAC, CNAP, FMAC edo FRAC sos lagūngoak.
Dozierrak bete, orrialdeak bete, ariketa zozo, einegarri eta ūsū ezdeūsentako.

Denek laborarien manifen herotsak entzūn dūtūgū, bena nork entzūn dūtū artistak irabazi jarraiki batentako lege baten eskakizūna egin dūelarik?

Lege bat zoinek ere ahabidetūko zeikūn "Frantziako kūlturaren aterastarzūn"-az baliatzea, egiten dūgūn aberastarzūna izanik, audela!

Laborariak beti eta praubeago ordūan eta orano haboro goizetik gaūalat lanean.

Artistak beti eta praubeago ordūan eta orano gūttlago ageri haren lanak, erakatsirik ez badira, gainera.

Egoera hau kontūtan hartūrik lehen erakusketa-manifesto bat eraiki nahi ūken dūgū zoinek ere nahasten beittūtu poetak, laborariak, artistika mugimentūak, idazleak, diseinū egileak, artista plastikoa...

Hamar bat artista, ber motibazio batek bildūrik: prekaritatearen halenganalū dūe haien lanaren egiteko; harekilan bizitzea ahalegintzen dira hartaz bereixi beno. Josquin Gouilly-Frossard-en eskūltūrak egūn oroz lekūz kanbiatūrik eta hondarkinekin eginik; Marcelle Delpastreren olerkiak etxaltekoren lanen denboran idatzirik; Fernanda Lagunak tintatū zonbait objektū; clueles bikotearen armailū-eskūltūrak, gure egūn oroztako biziaeren esperientziak birpentsatzen dūtūenak; Anouchka Oler Nussbaumen lehen marjolana; Bruno Jakoben marrazki bat ikusezinaz eta denbora bateko besterik iratūen ez dūanaz; Joel Bartoloméoren Im zonbait-familiako antropologoa; Noemi Lefebvreren testu zorrotzak, Laurent Grappe bere lagūnarekin egin dūtūan bideoak, eta, ene pintūra zonbait.

Bastien Cosson























